

Goierri

318. zenbakia 2007ko martxoak 23

Joxe Albizu

ERLE ARTEKO BIZITZA



Oporretako, metroko poster hau etxean jarri dut. Fotoetxen, bertan egin didate!

INPRESIO ONA!

www.fotoetxe.com

Tel: 943834605 / 943830938

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

NOBEDADEA


Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Alaitz Sarasola

Korrika 15

Izerdi pixkat bota ezean
izango dugu errita,
egutegian aspalditxoan
baitago gorritz jarrita:
martxo hileko hogeita lauak
nahi du zerbait aldarrika:
hamabostgarren edizioan
indartsu dator Korrika,
euskal hiltzunei muxuka eta
mingain alferrei harrika.

Karrantzan hasi ta Iruñara
lekukoa herriz herri,
hizkuntzak jartzen dio zentzua
hamaika gauza ederri
nola betiko euskaldun hala,
euskaraz ikasi berri
mingain hauetan dago geroa,
ez al duzue igerri?
famatzen duten bezain euskaldun
izango bada Goierri.

Doinua: "Sentimendua sartu zitzaidan"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Aitor Aranburu.

5. Ingurugiro txokoa: Herri
kontsulta Oianguko proiektuaz!

6. Euskara txukuntzen:
'Ber-' eta 'Bir-'.

8. Errezeta: Usoa parrillan.
Aholkua: Podologia prebentzioa
haurrengan.

12. Erreportajea: Joxe Albizu
erlezaina eta galtzerdi egilea.


17. Argazki-erreportajea: Aste
Santuaren *backstage*-a.

22. Elkarrizketa: Erick Odriozola
ballet dantzaria.

26. Non zer?

28. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Aitor Aranburu

Aldaketa: klimatikoa bakarrik?

Azkenaldian modako gaia bihurtu zaigu aldaketa klimatikoarena. Hautsak harrotu dituzte Stern infor-meak, IPCCarenak etab. Aldaketa klimati-koa ba omen da eta ondorio ekonomiko, ekologiko eta sozial garrantzitsuak eragin-go omen ditu. Gizakiak eragindakoa edo berezkoa den oraindik eztabaidagai bal-din bada ere, geroz eta nabarmenagoa ematen du gure azken hamarkadetako jo-kaerak baduela zerikusirik. Hala ere, eta eztabaida horien atzean sortzen diren bestelako interesak ikusirik (energia nu-klearra bultzatzearena adibidez) hori bes-te baterako utzi eta guk geure begiez iku-si ditzakegun gauzei eta aldaketei buruz hitz egin nahi nuke gaurkoan. Azken fi-nean, dena ari baita aldatzen gure baitan eta gure inguruan. Natura eraldatu dugu, geu aldatu gara, eta badirudi ikutzen du-gun guztia aldatu edo gaixotzen dugula.

Lehenengo behi eroak eta oilaskoen dioxinak izan ziren, gero hegaztien gripea eta orain baita pinuaren onttoak ere: nekazaritzako ekoizpen sistemen lorpen be-riak. Bitartean sagarrondoaren sua, gaztai-nondoaren tinta, zumarrak... gaixotasunak beti izan diren arren badirudi defentsaz ahul dabilela gure amalurra. Belardietan gure gurasoek ezagutzen ez dituzten hainbat belar-gaizto azaldu eta ugaritzen ari zaizkigu: globalizazioaren ondorio ko-lateralak. San Juanetako ipurtargiak ia de-sagertu zaizkigu, bururdina, elbitxoria eta beste hainbat txori mota gutxitu diren be-zalaxe (lapur-txoririk ez da falta eh?). Txi-kitan kabiak bilatzen jolastu ez dugun le-hen belaunaldia gara: ez dakigu zuhaitzak bereizten, txorien kantuak ezberdintzen, eta naturaren mirakulua, internet, telebis-ta eta gainerako -gailu guztiengatik or-dezkatu ditugu. Eta orduan nola mindu gertatzen ari denarekin?

Hor daude sintomak: gaixotasunak, espezie batzuen ugaltzea eta besteen mur-riztea, konportamendu aldaketak, azken 50 urteetan daramagun bueltarik gabeko bidaia-oren ondorioak. Eguraldia ere nahas-tuta dabil aspaldian. Esaera zahar batek esaten du "kandelariotan tximeleta ikus-tea baino hobe ardiartean otsoa": Gotzon Garatek bildutako esaera hau jarri zenean ere izango zen zerbait, baina aurten negu osoan zehar ikusi dira tximeletak, baita kandelariotan ere.

Konzientzia ekologikoa geroz eta han-diagoa dela dirudien garai hauetan, prak-tikan geroz eta jokabide antiekologikoa-goak egiten eta onartzen ditugu. Amazo-narekin kezkatuta baina etxe ondoan eta garapenaren izenean bada... Abiadura Handiko Trena esate baterako, Euskal He-rria-aren historian planteatu den obrarik handiena da: nekazaritza, arrantza eta eli-kadura departamentuak 100 urteetan gas-tatuko duena baino gehiago gastatu nahi dute, eta zeinentzako? Zein kosturekin? Badirudi trenaren aurka gaudenok gara-penaren aurka gaudela, eta nik alderan-tziz esango nuke. Horrela ez dago gara-penik. Lurra da bizitza iturri, eta lurrik ga-be zer? Non geratzen dira garapen jasan-garriaren diskurtsoak? Zein mundu utziko diegu ondorengoei denok horrela joka-tzen badugu?

Gizarte indibidualista batean gaudela jakinda ere, harritu egiten naiz jendearen pasibitatearekin. AHTa, superportua, erre-pideak, erraustegiak, Euskal Hiria eta he-rritarrek ere erabat hiritartuta. Ez dago neurriko erantzunik: gure herria txikitzen ari direnen aurrean lokartuta. Dena da ja-sangarria, globalizazioari alde onak aurki-tu behar zaizkio, nekazaritzak moderniza-tu egin behar du eta naturak jartzen diz-kigun trabak gainditzeko, hor daukagu zientzia. Zientzi santua, erlijio berria, eze-zaguna zaigun guztiari erantzuna emateko balio duena. Artzain bati entzun nion behin: "ikasketek izorratuko ditek mundu hau". Beti parre egiten nuen gehiegi uler-tu gabe, banekien ez lukeela hala izan be-har, baina orain ez nuke esango erabat oker zebilenik.

Hor daude sintomak: gaixotasunak, espezie batzuen ugaltzea eta besteen murriztea.



Arriak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Herri kontsulta Oianguko proiektuaz!

Martxo hasieran bi urte bete-ko dira Ordiziako Udalak Oianguko Parke Publiko-ko proiektu berria onartu zuela: golfa, paintballa, ige- rilekua, hotela, eta abar, le- gediaren betekizunei jara- monik egin gabe. Bi urte hauetan ordiziar eta goierri- tar askoren ahaleginei es- ker, proiektu hori ez da oraindik gauzatu. Proiektu hori onartzeko behar zen Plan Berezia orain trami- tzen ari da Udala.

Hasieran proiektuaren aurkako 3.000 sinadura aur- keztu bagenuen Udaletxe- an, Oianguko Plan Berezia- ri, Ordiziako Udalaren his- torian inoiz aurkeztu diren alegazio kopururik handie- na aurkeztu dizkiogu: 3.176. Alegazio horiek mota desberdinetakoak izan dira, batzuk pribatizazioaren aur- kakoak, besteak Ingurumen Ebaluazio orokorreko txos- tenaren zehaztasun faltaz, golfa eta paintballaren aur- kakoak, paisaia, fauna, lan- darediaren balioa azpima- rratzen dutenak bestetzu, e.a. Udalak dekretu baten bidez alegazio guzti horiek desestimatu ditu, beti ere, azken txostenak aginduko duena betekoa duela esanez. Alegazio bakarria onartu du Udalak, jabe batena, lur ja- betza baten mugei buruz- koa.



Orain Plan Berezia Eus- ko Jauraritzako Lurralde Antolaketa Batzordean da- go, txosten baten zain, ho- rrek Oianguko proiektua aurrera joatea baimendu edo oztopatuko duenarik.

Horrez gain, hurrengo hilabeteetan Kontenzioso Administratibo Auzitegiak Ikena entpresari emanda- ko konzesioaren legalitatea aztertuko du, orain urtebete Arartekoak irregularrak zela esan zuena.

Egoera honetan, orain bi aste, Goitur, Goierriko Tu- rismo Agentziako Niko Osi- nalde zuzendariak esanda- koa: Oianguko proiektua burutuko dela, arduragabe- keria handia dela uste dugu eta zuzentzea, eskatzen dio- gu, gaur egun, hori esatea gezur hutsa baita. Dena den, garbi azaldu du Osi- nalde jaunak, zer nahi duen Oiangurako: luxuzko hotela eta *konplejo eksklusiboa* iza- tea, eksklusiboa batzuentzat. Ordiziako Udala ere bat al

dator asmo horiekin? Hori egiten uzten badugu, hase- ran parkearen zati bat pri- batizatuko da eta hemendik urte batzuetara, parke osoa luxuzko hotelaren parke pribatua izan daiteke.

Guzti hau ikusirik, Oian- gu Parkea Bizirik Natur El- karteak Ordizian sinadura bilteta berri bat martxan ja- rriko du, Udalari Oianguko proiektuari buruzko herri- kontsulta eskatzeko, horre- tarako Oianguri buruzko in- formazioa emanez eta egi- tismo desberdinak aukeran ipiniz, baita gure elkarteare- na ere.

Herri kontsulta hori es- katzeko eta Oianguko kon- plejo turistiko *esklusiboaren* aurka azaltzeko, manifesta- ziora deituko ditugu ordi- ziarrek, datorren martxoaren 23an, arratsaldeko 7etan.

Martxotik hasiko gara si- nadurak biltzen herri kon- tsulta eskatzeko: horretara- ko behintzat 1.125 sinadura bildu behar dugularik, adin nagusiko ordiziarrenak, be- raz, berriz ere, Oianguko proiektuaren aurka diren adin nagusiko ordiziarrei eskatzen diegu beraien si- nadura emateko.

*Oiangu Parkea Bizirik
Natur Elkartea*

JAKIN BEHARREKOAK

Eusko Jauraritzak trasge- nikorik gabeko lur ere- mua izendatu ditu Ara- ba, Bizkaia eta Gipuz- koa. Kanpaina honen atzean lan talde ezberdi- nak egon dira, besteak beste: Ekonekazaritza, Lu- rreko Hazien area, Ekolo- gistak martxan, slow food, sindikatuak eta abar.

Arabaren laborantza eko- logikoa laukoiztu egin da. Gaur egun ekoizpenak 400 hektarea hartzen ditu. 120 hekt. ganadu ekologi- koaren hazkuntzarako la- rre eta belardietarako era- biltzen da. 74 hekt. mahas- tietarako, barazki eta tu- berkulentzarako 50hekt. eta fruitu arbolak 8,5 hekt. betetzen dute. Beste guztia laboreen ekoizpenerako.

Ingurumen kudeaketa eta kontu-ikuskaritza komunitate sistema EMAS ziurtagiria duten euskal enpresa 37 dira. Kopuru horrek euskal in- dustria egoera onean da- goela eta enpresen inguru- men kudeaketa arloan au- rrerapenak egiten ari dire- la adierazten du.

Goierriko AHT Gelditu elkarlanak informazio gunea inauguratu du martxoaren 3an. Ordiziako Goierri kalea 1-ean dago kokaturik eta helburua gi- zartea informatzea da.

Oiangu bizirik platafor- mak firma bilteta hasi du proiektu honen ingu- ruan Ordiziako herriak gal- deketa egin dezan. Sina- tzeko eskubidea ordizia- rrek eta adin nagusia du- tenak izango dute.

**Ordiziako Udalari Oianguko
proiektuari buruzko herri
kontsulta eskatzeko sinadura
bilteta Ordizian**



Landarlan taldeak egindako orrialdea
Taldea parte hartu, gairen bat aportatu
edo albisteren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943 16 12 44 - landarlan@yahoo.es

'Ber-' eta 'Bir-'

Maizpide
euskaltegia

Hainbat hitzen hasieran erabiltzen ditugun 'ber-' eta 'bir-' ez ote ditugu maizegi erabiltzen? Batzuetan ondo erabilia egon arren, askotan egokiagoa da *berriz* edo *berriro* erabiltzea! Hona adibide batzuk:

Erabilera okerra

- Hilabete barru **berragertuko** da Mikel Alonso Realeko elastikoa jantzita!
- Gai hori **berraztertu** beharko dugu.
- Kontsumorako Prezioen Indizeak gora nabarmen egin duenez, soldatak **berregokitu** egin beharko ditugu.
- Bizkaiko Petronor-en petrolioa **birfintzen** dute.
- Irak-eko gerra nola doan ikusita, George W. Bush-ek hainbat gauzatxo **birplanteatu** beharko ditu AEBetako Kongresuan.

Erabilera zuzena

- Hilabete barru **jokatuko du berriz** Mikel Alonsok Realeko elastikoa jantzita!
- Gai hori **berriro aztertu** beharko dugu.
- Kontsumorako Prezioen Indizeak gora nabarmen egin duenez, soldatak **egokitu** egin beharko ditugu.
- Bizkaiko Petronor-en petrolioa **fintzen** dute.
- Irak-eko gerra nola doan ikusita, George W. Bush-ek hainbat gauzatxo mahairatu beharko ditu **berriz (atzer)** AEBetako Kongresuan.


Azti ibili,
berrehun gizondik
gora jan dut-eta!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. EGAKo esaldi hauek berridatzi behar dituzue, lagunok!
2. Juande Ramos Sevillako entrenatzaileari kriston kolpea eman zioten joan den larunbateko futbol-partidan... eta hamar minutu pasa ondoren berreskuratu zuen konortea.
3. Hi, Josune, berresan iezagun nor maite dunan?
4. Jesukristo gurutzean hil zuten erromatarrek... eta handik hiru egunera berpiztu egin zen!
5. Zenbaki hori berretu egin behar duzu, emaitza hori lortzeko.
6. Bizkaiko industriak orain dela 20 urte izandako birmoldaketak familia ugari egoera latzean utzi zuen.

OHARRA: 2.a eta 3.a gaizki daude! Bigarrenengoan "Juan-de Ramos bere onera etorri zen" behar du eta hiru-garrenengoan "esan iezagun berriz".



INSTALATZAILE OFIZIALA



IAZA

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Juan Manuel Garmendia
Kattalin erretegia
Beasain

Osagaiak:

- Usoak.
- Gatza.
- Txerri-gantza.

Usoak, parrillan jarri baino hiru bat ordu lehenago hozkailutik atera.

Usoak luzetara, erditik moztu, gatza bota, txerri-gantzarekin igurtzi eta parrillan jarri. Bular aldetik, 3 minutuan eta beste aldetik pare bat minutuan. Gehixeko edo gutxiago egin, gustuaren arabera da, txuleketan bezala. Usoa gizen samarra egotea komeni da, mamitsua. Kontrapasa garraioak dira egokienak.

Parrilatik aterakoan, zar-tagia bero-bero dagoenean, txerri-gantza bota eta urtutakoan, usoaren gainetik bota.

Pertsona bakoitzeko, uso eta erdi edo bi uso kalkulatu dira. Usoak berehala egiten direnez, denak batera egin beharrean, erdika egin eta jatea komeni da, hoztu ez daitezten.

Kattalin erretegia, enkarguz prestatzen da plater hau.

Podologia prebentzioa haurrengan
AHOLKUA

Oinen forma-anormaltasunak oso ohikoak dira haurrengan, oinez hasten direnetik. Forma-anormaltasun hauen ondorioek ez dute epe motzean, osasunean eragin larriarik sortzen, hamar urte edo gehiago pasatu behar baitira, oinetako, belaunetako edo bizkarhezurreko... minak hasteko. Horregatik, kasu gutxi egiten zaie, baina denborak aurrera egin ahala, tratamendu aringarriak eta betirakoak izango dira, hau da, sintomak bakarrik arinduko ditu eta beti plantillak, silikonazko ortesiak... eramanaz ibilera hobetzeko.

Haurren oinetan gertatzen diren akatsik gehienak

zuzendu daitezke eta zenbat eta lehenago hasi tratamendua, zuzentzea errazagoa eta azkarragoa izango da, tratamendua eraginkorragoa baita kartilagoaren portzentajea handiago den heinean. Horregatik, 6 urtera arte, nahiko emaitza onekin tratatu daitezke oinetako forma-anormaltasunak. Hala ere, pubertarotik aurrera, oineko hezurrik motz gehienek bukatua dute bere osifikazioa eta zuzentzea zailagoa da.

Arazoa larritu egiten da, haurren oinetako patologiek eta forma-anormaltasunek minik ez dutelako ematen. Sintomak zeharkakoak izaten dira: ibileran altera-

zio arinengatik oinetakoa gehiegi gastatzea; oinak barru aldera ibiltzea, haurra askotan erortzen denean...

Oso garrantzitsua da gaitz eta forma-anormaltasun hauek haurtzaroan lehenbailehen antzematea, tratatu ezean, heldutasunean orkatiletan, belaunetan, aldakan, bizkar hezurrean... arazoak sortuko baititu.

Hala ere, tratamendu egokia egin ondoren, gurasoek adierazten dutenez, haurra ez omen da hainbeste kexatzen nekez.

Garaiz egindako tratamendu egoki batek, heldutasunean sor daitezkeen patologiak eta lesioak prebenitzen ditu.



Ainara Etxeberria
Hankara podologia

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

lore eta landareen udaberriko 7. azoka

2007ko martxoaren 25ean

SEGURAN

EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IREKIERA

- Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak
- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Eskualdeko artisautza eta produktuak

11:30etatik aurrera, IKUSKIZUNA plaza inguruan

- Erratz-egilea: Agustin Lopez Zubiria
- Makila-egilea: Jabier Telleria

Arratsaldeko 6:30etan

- Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan
- Ondoren, buruhandiak

ERAKUSKETA, Ardixarran

"Diaspora: Euskal Herria-Argentina"

Antolatzailea: Iparra-Hegoa

efektone



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



680 641 401

676 952 968



Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak

Kobraketa kanpaina hasiko dute Goierriko Hitzak eta GOIERRITARRAK

67,50 euroren truke harpidedunek egunkaria eta aldizkaria jasoko dituzte etxean

Goierriko Hitzak eta Goierritarra-k 2007ko kobraketa kanpaina hasiko dute egunotan. Ordaindu beharreko urteko kuota 67,50 eurokoa izango da Hitza egunkaria eta Goierritarra aldizkaria, biak, jaso nahi dituenarentzat; hau da, egunean 24 zentimoren truke egunkaria asteartetik igandera eta aldizkaria hamabostero etxean jasotzeko aukera dute kuota ordaintzen dutenek. Bi argitalpenen harpidetza aparte egiteko aukera ere badago: Goierriko Hitza bakarrik, urtean 62,50 euro or-

dainduz; eta Goierritarra bakarrik, 25 euro.

Hitzaren harpidedun eginez gero irakurleak bereizmen zenbait izango ditu aldeko. Iaztik urteko kuota ordaintzen duenari bakarrik banatzen zaio etxera. Dena dela, irakurtzeko interesa dutenek leku publikoetan jasotzeko aukera izango dute.

Datozen egunetan gutuna jasoko dute harpidedunek, eta han azalduko dira kuota ordaintzeko egin beharrekoak. Bestalde, ez direnek harpidedun egiteko

aukera badute, Bezeroaren Arretarako Zerbitzura deituz: 902 82 02 01.

Harpidedun ordaintzaile izateak abantaila ugari ditu berekin: hainbat eskaintza eta promozio berezi urtean zehar; Harpidedunen Txokoko zozketetan parte hartzeko aukera asteroko zozketetan; zorion-agurretan %20ko beherapena...

Kobraketa kanpaina ahalik eta ondoen gauzatzeko harpidedunei ahal den neurrian kontu korrontearen zenbakia emateko eskatzen zaie. Horrekin batera

atariko giltza ematea ere garrantzitsua da banatzaileek euren lana azkar eta eraginkor egin dezaten.

Harpidedunek giltza honako herri eta lekuetan utz dezakete: Beasain (Basakana taberna, Antzizar taberna), Lazkao (Gerriko liburudenda), Ordizia (Mujika liburudenda), Segura (Elorripe), Zegama (Maria Jesus okindegia), Ormaiztegi (Estankoa), Idiazabal (Xaloea) eta Zaldibia (Joxepane). Goierriko Hitzaren Beasaingo bulegora ere eraman daiteke giltza.

Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierritarra** 25 euro Egin ☒ bat ☐ **hitza** 62,5 euro
aukeratutako kaxan

☐ **Goierritarra** + ☐ **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbalde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Mirian Montero

Industria Diseinuan Ingeniaritzako
ikaslea. Hiri-altzariei buruzko
proiektua Fagor taldeko
Proiek:: Habitat & Equipment
enpresan.

**nolako ikasketak,
halako etorkizuna**

*"Tankera honetako
proiektuek, enpresa barruan
zure lanaren garrantzia
zein den ikustarazten dizute"*





Joxe Albizu erlezaina eta galtzerdi egilea

B easaingo Astigarreta auzoan jaioa, Zegamako Arbeltxo baserrian bizi da Joxe Albizu. 81 urte betea da eta oraindik ere bere bi lanbide kuttunetan jarraitzen du: erlezaintzan eta galtzerdiak egiten.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:

943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurritan.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrocientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Beasaingo Astigarreta auzokoa da jaiotzez. Urte batzuk Salbatore auzoan egin zituten. Dena den, urterik gehienak Zegamako Arbeltxo baserrian egin ditu. Bere bi afizioak eta ofizioak etxe inguruan biltzen ditu: erleak, eta ardiak, artilea egin eta galtzerdiak egiteko.

Joxe Albizuk beti ezagutu izan ditu erleak etxean. Txikitatik hasi zen erleen mundu miragarria ezagutzen. “10 urterekin hasi nintzen erleekin, lehenago igual. Aitak bazituen Astigarretan erleak. Aita kamenero zen Mandubin, Astigarretan, eta ni mutiko kozkorra nintzenean aitarekin batera joaten nintzen ikustera. Egutero begiak hazita joaten ginen eskolara, erleak helduta”, gogoratzen du Joxe Albizuk.

Aitonak ere bazituen erlauntzak. “Aitona Urtsuaranen nuen eta aitonarengana eramaten nindutenean, harek ere laguna nahi eta han ibiltzen nintzen zartagiari eutsi eta postura horretan”, zehaztu du. “Kea egiteko, ganadu simaur lehortua erabiltzen genuen. Hoberena, kaballeriaren simaurra izaten zen, behiarena baino hobea. Ke horrekin, putz egin eta erleak atzeratu egiten dira”, gaineratu du.

Gaur egun erleengana gerturatzeko garaian, jantzi bereziak janzten dira, erleak ziztadarik egin ez dezan. Baina lehen ez zen horrela-



Erlekumeak biltzen aditua

Erlekumeak biltzen esperientzia handia dauka Joxe Albizuk. Oraindik ere aritzen da lan horretan, inork deitzen badio. Bitxikeria ugari ditu gai honen inguruan eta horietatik bat, zehaztasun handiz kontatu digu. “Behin Beasaingo fraileek hots egin zidaten, erlea zeukatela Eskolako tximinian. Linterna ekarri zidaten eta goitik begiratzen nuen, eta erabat behealdean zegoen. Eskolan zuloa egin beharko nuela esan nien. Ezta pentsatu ere! Esan zidaten. Nola nahi duzu ba ateratzea. Berriz ere linterna hartu eta begira egon nintzen puska batean. Eta erle denak goraka, argitara zetoze la konturatu nintzen. Semea esan nion, etxera joan eta kaja bat ekartzeko, argizaria ipinita zuena. Fraileei galdetu nien eta linterna han edukitzen utziko zidaten. Baietz esan zidaten. Linterna beheara begira ipini nuen eta kaja ere bai. Koska txiki bat zegoen eta egur txiki bat jarri nuen. Erleek usaina hartu zuten eta barrura zetozen poliki-poliki. Semea eta biok etxera afaltzera joatea pentsatu genuen, gero afalondorenean etorriko ginela. Fraileei esan genien, eta ezetz. Elkarrekin afaldu behar genuela eta aita-semeak, hiru fraileekin afaldu genuen. Honezkero barruan egon behar zutela eta ikustera joan ginen eta halaxe zen, erlea barruan. Ikusi ga-be ez zuela sinistuko esaten zidan fraile batek”.

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

☎ **943 18 01 19** **ATAUN**

xetai www.xetai.net Tel.: 943 88 43 84

Armairuak · Altxariak Oriamendi, 30

Osagarriak **BEASAIN**

LAGO

korik Joxe Albizuk dioenez. "Orain kaskoak, maskarak eta guanteak dauzkagu... gure aitonak maskararik ez zuen. Txaketaren bat jartzen zuen burutik behera eta beste guztia libre".

Dena den, gaur egun ere, eskuak libre erabiltzen omen ditu zegamarrak. "Eskuak gaur egun ere tapatu egiten dira baina nik ez dut tapatzen. Eta ez badidate heltzen, ez nago oso gustura. Erleok fundamenturik ez daukatela esaten dut askotan, ez didatelako heldu. Aurrenetik, erlearen zitzada, akupuntura bezala izaten da eta erreakzioa sortzen du. Trantze txarrena, 16 urte zituela pasatu nuen. Gorputza ohitu egiten da eta erleak helduagatik, hazi ere ez zait egiten. Ni erleekin ez naiz maldizioka arituko, erleak helduagatik. Hizketan bai eh?", dio Joxe Albizuk.

Erlauntzak

Oraindik ere erlauntza ugari ditu Joxe Albizuk. Barbarisen, Eginon eta etxe ondoan ditu erleak. "Barbarisen sagastia jarri behar zuten eta erleak han jarriko nituen galdetu zidaten, polinizatze-ko. Altzaniara ere eraman nituen, txilar beltza asko zegoen eta. Baina ganadu asko ibiltzen da eta ganaduak kajak jo eta bota egiten ditu", azaldu du.

Urteak ez dira alferrik joan eta erlazaintzan ere ez. Erlauntzetan aldaketa handiak izan dira. "Lehen tronkoak izaten ziren erlauntzak, ganbaran dauzkat batzuk gordeta. Enborrak hartu, zerrarekin moztu eta, barrua hustu eta erlauntzak egiten genituen. Aitonak eta



Joxe Albizuk egunero goilarakada bat ezti hartzen du goizean esnearekin.

aitak hala erakutsita, gerezia omen zen egurrik onena, erretxina edukitzen baitu gereziondoak eta erleek oso gustuko dute. Urkia eta gaztainondoa ere erabili izan dira", gogoratu du Albizuk.

Enborrean erlauntza nola egiten zuen ondo gogoratzen da zegamarra: "ereditik ebaki enborra eta barrua hustu egiten genuen, aska bezala utziz. Bi enborrak elkartu eta ganadu simaurarekin itxi buelta guztia. Barruan, gurutze bat jartzen genuen. Muga adierazten zuen gurutzeak: urte batean, aurretik aterako zen ezti eta hurrengo urtean beste aldetik. Orduan ezin zen ezti non zegoen ikusi, orain bezala".

Enborretik kaxarako saltoa ematea asko kostatu zitzaion. "Aitak ez zidan erle-

rik uzten. Behin erlauntza kaja berri bat ekarri eta hurrengo erlekumea han sartuko zuela esan nion aitari. Erlauntza, Logroñoko Valvaneran utzi nuen. Ehizera ere joaten ginen eta joan ginen batean, erlauntza bete-beteta ikusi nuen. Kotxean hartu, etxera etorri eta kaja hura ekartzeko esan nion aitari. Ezin izan zuen altxatu. Kaja hura zer zen galdetu zidan eta ezti zela esan nion. Ordutik aurrera, erleak utzi zizkidan", aitortu du Albizuk.

Handik aurrera, erlauntzak egiten hasi zen. "Ni neroni erlauntzak egiten hasi nintzen. Erlauntzak egin eta saldu egiten nituen, eztiarekin batera. Bilbo aldera ere joaten nintzen. Hartan ere aspertu egin nintzen eta galtzerdiak egiten hasi nintzen. Haria egin eta galtzerdiak egiten".

Eztia

Eztia ere egiten du; jan ere bai. Egunero goilarakada bat ezti hartzen du goizean esnearekin. Batez ere, akazia lorearen egindako ezti erabiltzen dute. "Gaztaina

ere oso ona da, baina orain gutxi dago".

Udazkenean, "urri aurren aldera ateratzen diet. Abuztu erdialdetik atera leike. Erlakumeak jaiotzen ari-tzen dira eta behin hortik aurrera ez da jaiotzen. Erleek 40 eguneko bizia bakarrik daukate. Erreginak berri-z, 5 urteko bizia dauka".

Erlekumeak

Joxe Albizuk ondo baino ezagutzen ditu erleen nondik norakoak. Erregina, erlemandoa, erlea... bakoitzaren lan egiteko modua, erleen familian bakoitzaren zeregina... Erlekumea berreskuratzeko teknikak ere oso ondo ezagutzen ditu. Erlekumea, erle-taldea da, bereziki bere erreginarekin beste erlauntza bat osatzera doana. Bai lehen eta bai orain, erlekumeak kentzen lan egiten du zegamarrak. Lan hori nola egiten azaldu digu: "elkarrengana biltzen ditut poliki-poliki. Erregina kazo batekin hartu eta erlauntzara bota behar da eta besteak pixkanaka sartu egiten dira. Denbora batean utzi, hartu eta etxera".

Aitonak eta aitak erakutsita, gerezia omen zen enborrarentzat egurrik onena, erretxina dauka, eta erleari asko gustatzen zaio"

Joxe Albizu: “zirkulazioarentzat oso onak dira artilezko galtzerdiak”

Artilearekin haria egin eta galtzerdiak egiten ere, gaztetan ikasi zuen Joxe Albizuk. “Galtzerdiak egiten 18 urterekin ikasi nuen. Gerra denboran, 12 urterekin, morroi egon ginen gu. Eta amona batek, ardatzean, haria egiten zuen. Galtzerdiak bihurri-bihurriak ateratzen zitzaizkion. Eta nik ordurako aitona ikusita neukan eta egun batean esan nion, zergatik ez zuen haria egindakoan gero pixka batean eduki eta gero berriz erdia askatzen? “Lehen erraz bihurtu diat eta!”, esan zidan. Gehiago ez nion ezertxo ere esan”, gogoratu du Joxe Albizuk.

18 urte zituela, artzain joan zen Urdalurra. “Bi edo hiru urtean egon nintzen. Nagusiak haria kardatan egiten zuen eta ondoren galtzerdiak egiten zituen. Niri ikaragarri gustatzen zitzaidan galtzerdiak egitea eta bera arditara joaten zen garaian, ni puntua egiten hasten nintzen. Hark antzeman egiten zion. Puntua egiten ikasi nuen, baina gehiago ez zidan erakutsi nahi, orpoa egiten ez zidan erakutsi nahi. Nire izeba batengana joan nintzen eta orpoa egiten erakutsi zidan. Dena kontatuta egiten dut”, gaineratu du galtzerdi egileak.

Puntuz puntu

Buru ona eta bista ona ditut Joxe Albizuk. Puntuz puntu, lerroz lerro, egiten ditu galtzerdiak. “56 puntu jarzen ditut orratzan. Atzetik uhatsa egiten diet nik. Aitonak ez zituen galtzerdiak formarekin edo orpoarekin egiten. Nik bai, izebak erakutsita”, zehaztu du Joxe Albizuk.

Galtzerdiak egin aurretik dena den, haria egiten



du Joxe Albizuk. “Makila batetik 200 gramo hari ateratzen da. 12 bat egunean, bihurrea hartzen edukitzen dut. Haria egin eta segituan galtzerdia egiten baduzu, arrastoak okertuta ateratzen dira”. Galtzerdi luzexeagoak egiten hasita dago orain Albizu, “praka barrenak sartzeko luze antxeakoak nahi izaten dituzte-eta”, zehaztu du.

Galtzerdiak saldu egiten ditu, bakarren batzuk oparitu ere bai. Azokatan ibiltzen dira anaia gazteena eta biak. “Zirkulazio txarra dituztenentzako oso egokiak dira”, azpimarratu du.

Ardi txuriak

Galtzerdi egin berriak latzak izaten dira, baina Albizuk kontatu digunez, “ur hotzetan garbituta, zuritu eta leundu egiten dira”.

Hori bai, ardi txuri samarrak dauzka etxean. “Ardi beltzak ez du balio eta ardi txuri samarrak dauzkat ipinita”. Behin ardiari ilea moztutakoan, artilea ur hotzetan garbitu eta lehortzen uzten du.

Artilezko galtzerdiak egiten urte asko daramazki Joxe Albizuk.



Ur hotzetan garbituta, zuritu eta leundu egiten dira”

Apirilak 1: Erlezain eguna Zegaman

Martxoak 27, asteartea:

14:30ean: Herriko eskolan, erlezaintzari buruzko diapositibak eta ezti dastaketa ikasleei zuzendua, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik.

19:00etan: Olarango Gizarte Zentroan, 'Apiterapia' -ri buruzko hitzaldia, Iñaki Gonzaloren eskutik.

Martxoak 29, osteguna:

19:00etan: Olarango Gizarte Zentroan, 'Barroa gaurko erlezaintzan' gaiari buruzko hitzaldia Erlezain Elkartearen kide den Miren Lizasoainen eskutik.

Martxoak 31, larunbata:

20:00etan: Urrezko aizkolari lehiaketa 2007 (kanporaketa), Udal pilotalekuan.

Apirilak 1, igandea: Erlezain Eguna:

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30ean: Jai hasiera. Euskal Herriko Gozogile onenen produktuen erakusketa.

11:00etan: Gipuzkoako IX. Ezti lehiaketaren hasiera (milalorea erako eztiaren lehiaketa izango da eta bialarako txapelketetan sari-tuak aurkez daitezke baka-rrik). Ezti txapelduna, herri-tarrek aukeratuko dute das-



taketa herrikoiairen bidez.

12:15ean: Durrumbaren hasiera Aseginolaza Anaïen kaletik, Mañukorta eta Zerberio bertsolarien saioak tartekatuz.

12:30ean: Durrumba amaiera eta ezti lehiaketako epaimahai herrikoiairen itxiera ekitaldia. Ondoren, "erlakumearen bilketa".

13:00etan: Urteko erlezaina, Martxelo Fernandez donostiarra, omenduko da. Jarraian ezti irabazleari sari banaketa.

13:15ean: Gozoki zein ez-tien doaneko dastaketa herrikoia egingo da.

14:15ean: Bazkari herrikoia, herriko Ostatuan.

Bazkari txartela, 20 euro. Bertan erlezain ekipoa zozketatuko da. Izen ematea Zegamako Udaletxean (Eduarne, 943 80 13 51), martxoaren 27a baino lehen.

17:00etan: Tobera Musika Eskolako trikitilariak kalean zehar.

18:30ean: Zegamako Udal pilotalekuan, bertso jaialdia, Kasino elkarteak antolatuta eta Zegamako Udal Kultura Batzordeak babes-tuta. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Xabier Paia eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Sairoi Jauregi.

Eguna animatzen aurkituko diren zenbait jarduerara osagarri:

Argazki erakusketa: Aurreko urteetako Erlezain Eguneako argazki erakusketa, pilotaleku sarreran.

Txoznak: Artisautza, produktu ekologikoak, sendabelarrak, ezti, argizaria, propoleoa, eta abar saltzen. **Talogleak.**

Herritar zein elkartearen postuak: Aizkorriko Lagunen Elkartea, Turismo Bulegoa eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearen informazio gunea.

Erlearen munduan erabiltzen diren tresnen erakusketa: erlauntza, hauspoa, espatula, estraktorea, mozorroa eta abar.

Erakusketa mugikorra, erlezaintza eta ingurugiroa, panel informatiboak kokatuko dira kalean.

Erleak zuzenean: Jendearen jakinmina bete asmoz, kristalezko kaja antzeko batzuk erabiliaz, erleek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.

'Argizaria lantzen' erakusketa praktikoa.

Euskal Herriko gozoki onenen doaneko **dastaketa**. Hernaniko Adarraga gozogileak emandako txokolate beroa bertaratuentzat.

Aseguru konfedurria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

Pottoka
K A F E T E G I A

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitar-tekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Aste Santuaren backstage-a

*Prozesioak egin baino aste bete lehenago
janzten dituzte irudiak Segurako elizan*

I M A Z Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

Kale Nagusia, 27

SEGURA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA



Zatoz probatzera!

Aste guztian zabalik,
igande iluntzea eta
astelehena izan ezik

tel.: 943 80 17 57
ZERAIN



Aste Santuaren aurreko ostiralean erabat itxura aldatzen da Segurako Eliza. Irudi bitxiak nagusitu dira tenpluko bazter guztietan: Jesus, Etsaiak edo Pilatos erdi biluzik ageri dira, besoak falta dituzte... Goizeko 8,30ak aldera hasita 30 bat pertsona elkartu eta bakoitza berean fin ari dira inork agindu gabeko lanean. Hurrengo ostegun eta ostiralean herriko kaleetan prozesioan dotore aterako dituzten pausoetako irudiak jantzi eta prestatzea da goiz honetan duten lana.

ainaraetxeberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Goiko argazkiko Etsaien pausoko Kristoa elizako kaperan egoten da. Hurrengo argazkian Jesukristo bere lekutik jaisten eta beheko argazkian korutik andak garabi bidez jaisten.



Aurten martxoaren 30ean jantziko dituzte Segurako Aste Santuko irudiak. Aurretik larunbatean egiten zuten, Erramu bezperan, baina Arantzazuko pakearen aldeko peregrinazioaren egunbera izaten zenez, ostiralera aldatu zuten.

Irudi gehienak koruko aldamenteetako geletan egoten dira. Txukun egoteko tunika batekin estali eta lotuta jasotzen dituzte, arroparik gabe eta besoak kenduta, leku gutxiago hartzeko. Korutik garabi txiki batekin jaisten dituzte. Beste irudi batzuk, Etsaiaren pausoko Kristoa adibidez, elizako kaperan egoten da. Jesukristo elizan egoten da eta egun horretan jaitsi egiten da. Lehenengo orduan gizonezkoak aritzen dira andak eta irudiak jaisten, ondoren iristen dira emakumezkoak. Gora eta behera eskailera asko igo behar direnez gaiztezen lana izaten da hori.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARKI

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Dato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

Goierritarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info

ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Dena ondo antolatuta izaten dute, hasterako bakoitzak badaki zein den bere lana eta agindu beharrik ez da izaten. Lan finena emakumeek egiten dute, gizonezkoek gehiago egiten dute indarra behar den lana. Andek ezartzeko burdinezko oinarriak izaten dituzte eta hauek trapuekin estaltzen dira, baina trpuak zimurtuta egoten direnez, aurrena plantxatu egin behar dira.

Irudiek pisu handia dute eta kontuz aritu beharreko lana da, hausteko arriskua baitago. Adibidez, ondoko argazkian hautsitako behatza kolarekin itsasten ari dira.

Irudiak besorik gabe egoten dira eta beso bakoitza bere izenarkin gordeta. Gizonezkoek besoak jartzen dizkieta eta emakumezkoek jantzi.



ONDARRE
NEKAZALTURISMOA

6 logela bikoitz
eta 2 apartamentu

☎ 943 801 664 ☎

SEGURA

ARANBURU
HARATEGIA

☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41

Nagusia, 34

SEGURA



Koroak, kaskoak eta behar diren osagarriak jarritakoan, andan lotzen dituzte gizonezkoek, irudiak montatuta ondoren oinarriaren gainean jartzeko. Orduan, ondo jarrita ote dauden ziurtatu behar da, horretarako aurreko urteetako argazkiak garrantzitsuak dira. Dena ondo egin ezean, irudiak jantzen aritutako adineko emakumeak zaharrak balakoitik begira egoten baitira behar bezala jantzita ote daozen ziurtatzeko. Eta hauek, arroparen bat okerxeago edo gaizki jantzita ikusiz gero, azkar kexatzen dira.

Prozesioan eramateko bakoitzak bere pausoa duen bezalaxe, emakume bakoitzak bere irudia du jantzeko eta gehienetan familian usadioz pasatzen da ohitura hori. Normalean irudi bakoitza bi emakumeren artean jantzen dute. Goian eskuineko argazkian ikusten den bezala, azken uneko joste lanak ere egin behar izaten dituzte.

Behin jantzitakoan elizan geratzen dira ikusgai eguerdietan 12:00etatik 13:00etara. Lehen ostiralean bukatu eta larunbatean erantzen ziren, baina gaur egun, Ardixarrera etortzen diren bisitariek ikusi ditzaten hurrengo ostiralera arte mantentzen dira.

Lana bukatutakoan hamaiketako egiten dute, jantzitakoan gizonezkoek bakarrik eta erantzitakoan gizon eta emakumeek. Erantzitako egunean tabernara joan eta norbaitek "jaso al dituzue?" galdetuz gero "bik ihes egin zigutek" erantzun izan dute umore onez, lana bukatutakoan alai egoten diren seinale.

Aste Santuko egitaraua

Apirilak 1: Erramu Igandea:

11:45ean: Erramu bedekintzea.

12:00etan: Meza Nagusia Parrokian.

Apirilak 5: Ostegun Santua:

17:00etan: Azken Afariko Meza Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 6: Ostiral Santua:

08:00etan: Gurutz bidea Santa Engrazitik Sorkundetar Komentura.

16:30ean: Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna, Gurutzetik jaitea Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 7: Larunbat Santua:

21:30ean: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Apirilak 8: Pazko eguna:

12:00etan: Meza Santua.

EL
 LORRI
 PETE



HERRIKOA

Euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei.

☎ 943 80 10 02
SEGURA

Erick Odrizola ballet dantzaria

Gran Canaria Ballet konpainian hasi berria da gabiriarra

Paristik bueltan, urtebeteko kontratuarekin besapean etorri da Erick Odrizola. Kanaria Handia irlara joan da bizitzera, Las Palmasera, sortu berria den Gran Canaria Ballet konpainian

onartu baitute. Azkeneko hilabeteetan Biarritz Ballet Junior konpainian ibili da. 21 urte ditu eta 15 urtez geroztik hanka puntatan, dabil dantza klasikoaren erritmoan.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnada 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

0



Nolatan eta noiz hasi zinen dantza klasikoaren munduan?

15-16 urterekin dantza ikas-tera joan nintzen Zaragozara. Aurretik antzerkia egiten hasi nintzen Donostian eta irakasle batek esan zidan zergatik ez nuen dantza probatzen. Dantza akademi batera joan nintzen eta sei hilabete egon nintzen gutxi gorabehera. Han esan zidaten dantzarekin jarraitu nahiko banu, udaro, Espainiako eskola handietara joan beharko nukeela ikastaro bat egitera. Eskola onak, Madrilen edo Zaragozan daude. Zaragozara joan nintzen ikastaroa egitera eta han gelditu nintzen. Gero lesionatu egin nintzen... eta Madrilerara joan nintzen probatzera, ikastaroak egitera. Han esan zidaten, Victor Uliaten gelditzeko esan zidaten. Iazko irailera arte, han egon naiz.

Antzerkiko irakasle hark zer ikusi zuen, bada?

Ez dakit. Gorputz adierazpenaren tailer bat egin genuen eta ez dakit zergatik, esan egin zidan.

Dantza gustatzen al zitzaizun?

Bai, txikitatik beti gustatu izan zait dantza. Baina inork ez zidan kasorik egiten etxean. Txikitari euskal dantzetan ibili nintzen, ikastolan. Baina Azkoitin bizi izanda, dantza egitea zaila zen, mutila izanda gainera okerrago. Beraz, antzerkia egiten hasi nintzen, eszenatoki gainera igotzea gustatzen zitzaidalako. Gero dantzan hasi nintzenean, konturatu nintzen dantza zela niri gustatzen zitzaidana.

Irakasleak beraz, begi ona eduki zuen.

Bai.

Dantza klasikoarekin hasi al zinen zuzenean?

Donostiako akademian egon nintzenean, dantza klasikoarekin aritu nintzen eta Zaragozara joan nintzenean ere, dantza edo ballet klasikoarekin jarraitu nuen.



Gran Canaria Ballet konpainian

Martxoaren 14an Las Palmasera, Kanaria Handia uhartera joatekoa zen, bertako ballet konpainia berriarekin urte beteko kontratua sinatu baitu. "Kontratu interesgarria da. Gran Canaria Ballet konpainia berria da eta maiatzean dute estreinua egiteko asmoa. Nacho Duato, Balanchine, Jimy Kilyan, Forsait koreografoen obrak interpretatuko ditugu. Parisen audizioa egin eta Gran Canaria Ballet konpainiarako plaza eskuratu nuen".

Euskal Herrian ez dago dantza eskolarik ezta? Orain Ballet Biarritz Junior sortu da Donostian eta bertan egon zara irailetik.

Hemen akademiak daude baina ez dago eskolarik. Espainia edo Europa mailan daude. Ballet Biarritz egin duen proiektu honekin, harrobia eduki nahi du. Karrera bukatu eta dantza egiteko prest dagoen jendea hartu eta Junior batean erakutsi nola den profesional bizitza eta konpainia profesionaletara joateko prestatu. Nire ustez nahikoa proposizio ona da. Hemen ez dago ezer eta hemengo jendeari aukera ematen dio. Kulturalki ere pauso garrantzitsua da. Dagoen bakarra da eta dezente mugitu izan gara. Orain, martxoaren 14an Las Palmasera noa bi-

zitzera, urtebeterako Justu-justu harrapatu zaigu orduan. Zein konpainiarekin arituko zara?

Konpainia berria da: Gran Canaria Ballet. Errusiako familia batek sortu du, bere seme guztiak dantzariak dira, dantzari onak. Dirudunak dira eta konpainia hau sortu dute. Kanarietako gobernuak ere dirua ematen diote eta konpainia nazional bat bezala egin nahi dute, baina beste era batera, gauza gehiago dantzatzu. Diru asko irabazten dugu dantzariok, oso ondo dago kontratua eta konpainia handietan dantzatzaren diren dantzak dantzatzeko dira. Itxura ona dauka. Gero ikusiko dugu baino...

Bidea irekitzen lagundu dizu beraz, Ballet Biarritz Juniorrek.

Bai asko. Asko ikasi dut. Sei

hilabeteen egon naiz baina denbora honetan asko ikasi dut. Beste era batera lan egiten da. Tenikikoki eskolatik prestatuta ateratzen gara. Baina dantzari baten formakuntza, bizitza guztia da. Ez da berdina dantzari bat hasten denean ala jubilatzen denean. Ballet Biarritz laguntzen du, azken pauso hori finkatzea, profesional bihurtzeko bidea. Segurtasuna, beldurra kentzea. Eszenarioetan dantza egin dugu eta hori da garrantzitsua. Eskola batean inoiz ez da hori egingo. Eszenarioak ematen ditu tablak. Eskola batean azken finean, teknikoki hobetzeko zaude, baina konpainia profesional batean beste era batera lan egiten da. Honek erakusten dizu nolakoa den lan hori. Eguneroko entsaioek beste segurtasun bat



ematen dute. Informazioa asmilatzeko ere askoz errazagoa da, erraztasuna hartzen da. Ni behintzat oso gustura egon naiz eta izugarrizko pena ematen dit joatea. Gustatuko litzaidake Kanarietako irailean izatea eta hemengoa bukatzea. Baina dena azkar izanda...

Dantzariaren bizitza hori izaten da, ezta, batetik bestera mugitu beharra...

Nik behintzat horrela daromat: leku batetik bestera, beti mailetekin. Ohitu egiten da baina jende asko uzten duzu bidean. Azken finean, bakarrik zaude. Familia badaukazu baina urruti daude, lagunak ere bai. Leku berri batera joandakoan lagunak egiten dituzu baina berriz ere alde egin beharra daukazu...

Biarritz Balletera itzuliz. Junior konpainia zer izaten da?

Junior, konpainia bat bezala da baina horrek esan nahi du, ez dugula hainbeste diru irabazten eta oraindik konpainia hasten ari dela. Junior konpainia asko daude eta junior guztiek berdintsu lan egiten dute.

Konpainia batean egoteak, fisikoki baino gehiago lagundu dit, buruan. Gauza asko ikasi behar dituzu, oso azkar eta hori ez da erraza, ez gaude ohituta.

Bertan sartzeko aukeraketa probaren egin behar zenuten, ezta?

Ballet Biarritz Junior kon-

Biarritz Balletarekin bide bat sortzen hasi da eta bi urte barru ikusi egin behar, beharbada beste konpainia bat sortzea.

painian sartzeko aukeraketa proba gainditu behar izan nuen joan zen ekainean. 200 pertsona inguru aurkeztu ginen. Konpainian 10 lagun gara: 3 mutil eta 7 neska.

Audizioz audizio ibili behar izaten duzue beraz.

Audizioz audizio. Frantziara, Alemaniara, Suitzara... joan behar da audizioak egitera. Alemanian ballet asko dago. Suitzan ere bai, Frantzian... Alemanian dantzariak funtzionariak dira eta gobernuak ematen diote dirua, hilero soldata finkoa edukitzen dute. Hemen ezinezkoa da hori.

Gipuzkoan dantzariak sortzen ari zarete baina kanpoan ari zarete lanean.

Hemen, euskaldun asko kkanpora joan behar izan dute. Nik adibidez, lehenengo esperientzia profesionala etxean eduki dut, beste jende askok ez du aukera hori eduki.

Amesten al duzu etxera etorri eta zuk zeuk hemen bertan zerbait sortzea?

Niri momentu honetan, kanpora joatea gustatzen

zait. Baina ondo egongo litzateke etxean bertan aukera egotea. Egia da, hemen ez dago ezer dantza munduan, kultur munduan orokorrean. Ondo egongo litzateke konpainia bat edo bi sortzea, jendeak ezagutuko lukeelako... Nik uste dut Biarritz Balletarekin bide bat sortzen hasi dela eta bi urte barru ikusi egin behar, beharbada beste konpainia bat sortzea. Gustatuko litzaidake. Zaharragoa zarenan eta bertan instalatzeak, segurtasuna ematen du. Baina momentuz nahikoa ezinezkoa ikusten du.

Irudikatzea ere ezinezkoa al da?

Ezinezkoa ez dakit baina oso zaila bai. Hemendik urte batzura ikusi egin behar. **Dantza ikuskizunak ere ez dira asko antolatzen.**

Eskaria badago. Ballet bat etortzen da eta jende asko joaten da ikustera. Nik uste dut jendeari gustatzen zaio la balleta. Baina noski, ez baldin badago? Guk adibidez, Ballet Biarritzekin ikuskizun asko dauzkagu. Hila-betero daukagu zerbait eta gu oso konpainia txikia gara, oraintxe hasten ari dena.

Nik uste dut posible dela konpainia bat sortzea, jende askorekin eta diru askorekin.

Pentsatu al duzu antzerkia eta dantza uztartzea?

Ni aktore oso txarra naiz. Nire mundua dantza da, ni dantzaria naiz, ez aktorea. Nik zerbait montatuko banu, dantza konpainia izango litzateke.

Miarritzekoa da berez Ballet konpainia. Han aukera gehiago al dauka dantzak?

Dantza gehiago dago. Baina Estatu Frantziarrean ere nahiko geldirik dago. Ballet Biarritz konpainia ona da, Filgie oso koreografo ona da eta asko mugitzen dira. Jiretatik bizi dira. Beraiek ez daukate subentzio bat konpainia nazional bat bezala. Ez dira funtzionarioak. Oinarrizko soldata daukate baina bestea, egindako lanetik kobratzen dute. Eta konpainiak oso ondo funtzionatzen du. Estatu Espainiarrean baino mila konpainia gehiago daude. Dantzari onak Frantzian badaude, Espainian ere bai eta Euskal Herrian ere bai. Luzia Lakkarra hor dago.

Orain Donostian, Victoria Eugenia antzokia ireki dute. Zerbait aldatuko al da?

Egin zezaketeen konpainia bat. Baina dirua behar da. Gobernuak dirua eta dirulaguntza eman beharko luke kultura sortarazteko.



“Victoria Eugenia dantzatzea da nire ametsa”

Dantzari bezala zein da zure ametsa?

Nire ametsa, dantzatik bizitzea da, dantzatik jatea. Horrekin konformatuko nintzatekeen. Dantzari handiak daude, baina horrelako dantzaria izatea ezinezkoa da. Nik uste dut, dantzari bakoitzak errespetu bat merezi duela. Bakoitza den bezalakoa da, bakoitzak bere lana egiten du eta guztiek merezi dute errespetu bat. Luzia Lakarra, zumaiarra, hor dago...

Luzia Lakarra bat izatea adibidez?

Hori ezinezkoa da. Erick Lakarra! Badakit ezetz baina honetatik bizi banaiteke, gustura.

Alemania aldera joateko irekita al zaude?

Bai, gustatuko litzaidake eta nik uste dut saiaturko naizela. Aurten Europa mailako audizioak egitekoa nintzen. Baina lehenengo audizioa, Parisen egin nuena izan zen eta hartu egin ninduten. Kontratu oso ona da, beste konpainia askotan baino askoz ere hobe eta ezin dut ezetz esan, dantzarion lan mundua nola dagoen ikusita. Oso gaizki dago eta joan beharra daukat.

Konpetentzia edo inbidiarik izaten al da dantzarien artean?

Asko gara eta inbidia asko dago, ez da jende garbia. Eskolatik bertatik ikusten da konpetentzia eta inbidia hori. Ni aspertuta nago horrekin eta beldurra horri bakarri diot: hainbeste ordu lan egingo duzun jendearekin, gutxienez behintzat, errespetua egon dadila. Lan honetan, konpainiarekin hilabeteko jiran bazabiltza, pertsona horiekin eguneko 24 ordutan egongo zara.

Zein antzoki edo aretotan dantzatzea da zure ametsa?

Victoria Eugenia gustatuko litzaidake. Madrilgo Realen ere bai, baina niretzat zerbait pertsonala izango litzateke Victoria Eugenia dantza egitea, zerbait berezia. Areto handietan, eta beteta baldin badago askoz ere hobeto.



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA · ENPRESAK


KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Segura

Lore eta landare azoka,
martxoaren 25ean

Udaberriko lore eta landareen 7. azoka izango da igandean, martxoak 25, Seguran. Loreak eta landareak izango dira protagonista nagusiak, baina izango da beste ekintza osagarriak. Jarraian duzue egitaraua:

10:00etan: azokaren irekiera: Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak; lore eta landare erakusketa eta salmenta; eskualdeko artisautza eta produktuak.

11:30etan: Ikuskizuna plaza inguruan: Agustin Lopez Zubiria erratz-egilea eta Javier Telleria makila-egilea.

18:00etan: Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan.

'Diaspora: Euskal Herria - Argentina'

Ardixarran, 'Diaspora: Euska Herria-Argentina' erakusketa. Antolatzailea: Iparra-Hegoa.



Goierri

Hemen da Korrika 15!

Martxoaren 22an Karrantzan hasi ondoren, martxoaren 24an, iritsiko da Korrika 15 Goierri:

Ezkio-Itsaso:	4:57	Biribilgunea
Gabiria:	5:03	Gabiria bidegurutzea
Ormaiztegi:	5:14	Irizar
Mutiloa:	5:40	Liernitik behera
Zerain:	5:45	Mutiloko bidetik
Segura:	5:53	Zeraindik behera
Idiazabal:	6:13	Guardi industrialdea
Olaberría:	6:39	Elosegi ardotezia
Beasain:	6:57	Antzizar
Lazkao:	7:19	Senpere
Ordizia:	7:37	Lazkaibar
Itsasondo:	8:10	Herri sarrera
Legorreta:	8:33	Herri sarrera



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

HIERCOR, S.A.

BURDINAK, METALAK ETA DESGUAZEAK

Anduaga industrialdea, 5 blokea - 1. ezk.

20709 EZKIO-ITSASO

Tel.: 943 72 51 75

Biltegiko tel.: 943 88 17 07

Biltegiko faxa: 943 88 75 42



Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.

Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)

Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661

e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com

web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Goierriko UEMAk herriak Korrikarekin bat

Altzaga Arama Gaintza Itsasondo Zaldibia



Heldu euskararen lekukoari!

ETXEBIZITZAK

salgai

Ataun San Martin. 100 m²ko pisua berria salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, garajea, trasteleua. 661950466.

Ataunen, San Martinen. Berritzeko 2 etxebizitza. INMO F3 943164936 - 629417171.

Ataun. Dena berritutako etxebizitza. 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugela eta trasteleua. Sartzeko. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain: Hiru eta lau logelako etxebizitzak. Sukaldea jantzita, egongela, bainugelak, trasteleua eta terrazarekin. Igogailua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasainen, berritzeko pisu eder bat erdigunean. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen salgai 2 logelako etxebizitza, garajea. 247.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain: futbol zelaitik gertu, 65 m²ko etxebizitza salgai. Hiru logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasainen, 90 m²-ko pisu argitsua salgai. Igogailua, berogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 252.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, erdigunean, berritutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain, Nafarroa Etorbidean, 125 m²ko atikoa salgai, igogailuarekin. Sabaia eta zorua eginda, barneko banaketa norberak egiteko. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasain. Eraikuntza berria. Bi eta hiru logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugelak eta balkoiak. Igogailua, garaje itxia eta

trasteleku. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Idiazabal. Berritzeko apartamentu eder bat. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabalen, eraikuntza berria: bi eta hiru logelako etxebizitzak, 43.500.000 milioitik hasita. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Idiazabal. Eraikuntza berriko etxebizitzak. Bi eta hiru gelakak eta duplexak. Garajeak ea lokal komertzialak. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Lazkao: neurri eznerdinetako etxebizitzak, igogailuarekin eta gabe. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Legorreta: 90 metroko etxebizitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua eta trasteleku. Dena kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Legorretan, eraikuntza berriko bi etxe eder salgai. INMO F3 943164936 - 629417171.

Olaberria: 440 m²ko etxe bifamiliarra, hiru solairuetan eraikia. 9 logela. 1200 m²ko lorategia. Informazio pertsonala. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ormaiztegi. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua eta bainugelak. Igogailua, trasteleku eta garajea. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Segura. Eraikuntza berriko etxe adosatua. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugelak. Garaje, terraza eta lorategiarekin. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zaldibia: Eraikuntza berrian pisua salgai: 80 m²ko etxebizitza, 60 m²ko terraza eta garajea. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.


Zegama. 75 m²ko etxebizitza. 2 logela, egongela, sukalde ekipatua eta bainugela. Dena berrituta. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zegama. 75 m²ko pisua salgai. Eraberritua eta altzairuz hornitua. 676298809.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



kutxa

BESTELAKOAK

salgai

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Trabiesak salgai. 635716795.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen Trasnpporterra salgai. 943655700 - 685796881.

Renault express-a salgai. SS-AV. ITVa pasata. 620036749.

Citroen ZX salgai. 1.6 i, SS-AM. 190.000 kilometro. Egoera onean. 900 euro. 679745384.

Mercedes Vito salgai. Ekipatua. 75.000 km. 636979154.

GALDUTAKOAK

Ehizk txakur txuri-beltza agertu da. Gaztea eta kate puska batekin. Arra. Jabeak deitu dezala Olaberriko udallexera. 943887434.

NEGOZIOAK

errentan eman

Zegaman okindegi zaharra alokatzen da. 943801107 - 695722341.

GARAJEAK

salgai

Ordiziako Altamiran, 18 m²ko garajea itxia salgai. 2.300.000 pezeta. 943084204.

Beasainen, Lizeo inguruan, 13m²-ko garaje itxia salgai. Aukera paregabea. 645705287.

LOKALAK

errentan eman

Goierri, 126 m²ko lokala alokatzen da, biltoki bezala erabiltzeko aproposa. 490 euro. 616411142.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da **Goierritarran**, behin **Goierriko Hitzan** eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

LANA

eskaerak

Jatetxe baterako zerbitzari euskalduna behar da. Egutero lan egiteko. 943880044.

Urtebuko Ederrena tabernan pertsona euskalduna behar da arratsalde eta asteburuetarako. 638843857.

Pertsona bat behar da asteburuetan taberna bateko barran lan egiteko. 943160205.

Goierriko rock talde baterako bajista eta bateria behar dira. Urko. 679229968.

Mekaniko bat behar da Goierriko kotxe tailer batean. 670285995.

Zerbitzaria eta sukaldarako langilea behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. 606503777.

Laguntzailea behar da asteburuetan Beasaingo ileapaindegiri baterako. 943881442.

20 peoi behar dira Legazpiko metalurgiako enpresa batean lan egiteko. Pasa Laborman bulegotik. Kale Nagusia, 42 behe. Beasain.

eskaintzak

Edozein lan egiteko neska bat prest dago. Erreferentziakin. Egutero osoko jardunaldirako prest. 650394361.

Posta eta publizitate banaketa egiteko prest dago. 648809850 - 679896844.

Neska lan bila dabil. Zerbitzaria, garbiketa... 650766630.

25 urteko neska eskaintzen da dendari bezala lan egiteko. Bi urteko esperientzia. 638843869.



kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Goierri, 12

ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



Altzariak neurri

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldoko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



Ordiziako Jakintza ikastolako 10 urteko ikasleak, 1987ko ekainean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Egoitz Otegi, Ramon de Arriba, Eneko Lamarka, Leire Mendizabal, Maider Otegi, Gema de Marcos eta Alaitz Romo.

Erdiko ilaran: Alain Perez, Urko Buldain, Urtzi Mujika, Luisa (irakaslea), Raul Feliz, Amalur Bruno, Maider Ruano eta Garbiñe Astudillo.

Beheko ilaran: Ibon Zarrabeitia, Gorka Usabiaga, Ibai Elosegi, Gorka Zudaire, Ainize Lasa, Irune Iraola eta Leire Serrano.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA





GERTU

ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK


San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



MUJIKA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Goierri Lanbide Eskola
la granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2007-2008 eskaintza

Zurekin Etorkizuna landuz

BATXILERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknikoa

Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik



Ate irekien eguna: Martxoak 29 arratsaldeko 18:00etan.



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA


Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626



Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkailea, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomateak, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatzak,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN



ACDA